



ARRASATEKO KULTURATEKO ARETOAK ERABILTZEKO ARAUAK

1. ESKAERAK

- 1.1 BAZeko bulegotan aurkeztu behar dira horretarako dagoen inprimakian
- 1.2 Ekipamendu aldetik beharrak eskaeran azaldu beharko dira.
- 1.3 Gutxienez hamabost egun aurretik, bilerak egiteko izan ezik, bezperan ere eskatu daiteke eta.

2. ARAUAK

- 2.1. Areto bat erabiltzeko baimena emateko, irizpide hauek nagusituko dira:
 - Zentroaren programazioa.
 - Guneen erabilgarritasuna.
 - Langileriaren egoera.
 - Ordu-tegiak: Hauxe da Kulturateko erreferentzia ordu-tegia
 - Asteleheneetik egubakoitzera arte: 10:00 – 13:00 / 16:00 – 21:00
 - Zapatuan: 10:00 – 13:00
- 2.2. Ekitaldiak egiteko aretoak irabazteko asmorik gabeko gizarte, kultura eta kirol izaerako elkarte edo entitateei bakarrik emango zaie dohainik erabiltzeko baimena. Beste edozein erabilera Arrasateko Udalak aztertu beharko du.
- 2.3. Bilerak egiteko:
Pribatuak diren bilerak egiteko, goian aipaturiko entitate eta elkarteek gain, pertsona fisikoak ere baimendu ahal izango dira, bilerak kultura, gizarte edo kirol izaera baldin badu.
- 2.4. Aretoak dohainik erabiltzeko baimenak bertan egingo diren ekitaldiak irekiak eta dohainik izan beharko direla suposatzen du, Arrasateko Udalak baimendutako salbuespen zuriak izan ezik.
- 2.5. Alokairuak:

2.2, 2.3 edo/eta 2.4 puntuak betetzen ez diren kasuetan alokairua kobratuko da erabilera egiteagatik Ordenantza Fiskaletan azaltzen diren tarifen arabera (7. ordenantza, D EPIGRAFEA).
- 2.6. Egingo diren ekitaldiak zentroen ordu-tegi-talara egokitu beharko dira, eta ezin izango dute zentroen programazioa nahastu edo eragotzi, ez eta KULTURATEko eguneroko funtzionamenduari traba egin ere. Ordu-tegi honetatik kanpo geratzen den guztia, arduradunen iritzien arabera egingo da, langileria eta programazioa kontuan hartuta.
- 2.7. Eskatzaileak konpromisoa hartzen du, ekitaldian parte hartzen duten pertsona guztiek hauek betetzeko:
 - Ohiko erabilera ordu-tegia
 - Arrasateko Udalak zehaztuko dituen sarrera eta erabilera arauak
- 2.8. Eskatzaileak ardura hauek hartuko ditu:
 - Aretoa zegoen egoera berean uztearena



- Erabileragatik edo mantentzean ardura faltagatik ekitaldian zehar aretoetan gerta daitezkeen kalteena.
- 2.9. Arrasateko Udalak aretoetan beharrezkoa den edozein aldaketa, eraldaketa edo seinaleztapena alde aurretik baimendu beharko du. Kasu horretan, beti behin-behineko edo denborazkoa izan beharko da, eta ezin izango dira erabili zoruetan, hormetan edo sabaietan finkapenak behar dituzten elementuak.
- 2.10. Baimen honek ez du esan nahi KULTURATEko langileak lanerako erabiliko direnik, ez eta bere ekipamendu teknikoa edo materialarena ere. Ekipamendua dela-eta behar bereziak badaude, eskaeran azaldu beharko dira eta Arrasateko Udalaren baimena izan beharko dute.”

Aipatu arauak behin-behineko izaeraz onartzen dira eta hiru hilabete inguru igaro ondoren izandako esperientziaren inguruko balorazioa egingo da.